



2.BEZERO SEGMENTUA

Beren estiloa aurkitu nahi duten bezeroak:

Gure bezero askok ez dute argi zer estilo izan nahi duten, eta, horren ondorioz, ez dira guztiz gustora sentitzen janzten duten arroparekin. Bezero mota horiei gure markako hainbat estilotako arropak eta makillaje ezberdinak erakusten dizkiegu, eta aholkuak ematen diegu ikuspegi objektibo eta profesional batetik.

Gaixotasunagatik ilea galdu duten bezeroak:

Gaixotasun batzuek bekainetako ilea erortzea eragiten dute, adibidez, minbiziak. Gure enpresan pertsona horiei lagundu nahi diegu nolabait, eta, horretarako, mikropigmentazioa eskaintzen dugu. Mikropigmentazioa larruazala pigmentatzen duen teknika bat da, bekainetan ilea duzula eman dezan. Garrantzitsua da mikrobladingarekin ez nahastea, guk ez baitugu teknika hori eskaintzen. Mikrobladingak emaitza errealistagoa uzten du, baina teknika askoz kaltegarriagoa da larruazalarentzat, eta, gainera, mikropigmentazioak baino gutxiago irauten du. Gure negozioa ondo badao, etorkizunean ere ileordeak egingo ditugu.

Estilo jakin baten bila dabilen bezeroak:

Gure bezero batzuk argi dute zein estilotara iritsi nahi duten. Kasu honetan, guk egin behar dugun gauza bakarra ideia horiei forma ematea da.

Autoestima baxua duten bezeroak:

Gure bezero batzuei zaila egiten zaie ispilu baten aurrean jartzea, ez daudelako guztiz konforme haien fisikoarekin. Bezero horiei produktu zehatz batzuk gomendatzen dizkiegu, konkretuki edertzeko eginak daudenak.